

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresan beharrezkoak ditugun baliabide batzuk ditugu. Hauek, funtsezko baliabide deritze. Baliabide hauek, gure balio-proposameneko eskaintza garatzen, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetzen dizkigutenak dira. Beraz, guk, hiru multzotan banatu ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta giza baliabideak, eta, azkenik, finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokionez, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat baliakizun izango ditugu. Azkenean, gure helburu nagusia bezeroak erakarri eta jendeak gure zerbitzua kontsumitzea da. Horregatik, komunikaziorako erraztasuna emango digute baliabide teknologikoez, zehazki telefono eta ordenagailuek. Gainera, ordenagailu eta telefonoen bitartez gestioak eta beste hainbat mugimendu burutu ahal izango ditugu. Bestalde, lokala bera ere ezinbestekoa izango da gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, izan ere, hori da gure proiektuaren muina: bertan eskainiko ditugu gure zerbitzu guztiak. Ondorioz, diru-sarrerekin lotura zuzena izango du, gure diru-iturriak baldintzatuko baititu, eta bezeroekin harremanetzeko garaian ere garrantzitsua izango da, zerbitzua eskaintzeko garaian kontsumitzaileekin kontaktuan egongo baikara.

Halaber, baliabide intelektual eta giza baliabideei dagokionez, gure taldekide bakoitzaren jakintzak eta abileziak ezinbestekoak izango dira gure enpresa ahalik eta hobereana izateko, baita gure arteko rola banatzeko. Hasteko, Unax sormen handiko mutila da. Honek, gure proiektua asmo handikoa izatea bultzatu eta ideia berriak sortzen lagunduko digu. Beraz, alderdi hau islatua ikusi ahal izango dugu diru-sarrera eta bezeroen feedbacketan. Gainera, harremanetarako trebea den taldekidea da Unax. Horregatik, bezeroekin harremanak sortzea errazagoa izango da. Bigarrenik, Xabik, negoziatzeko ahalmen handia duen horretan, diru-sarrerak hobeak izatea lortuko dugu bere gaitasuna baliatuz. Ondoren, Negu, Unaxen antzera, sormen handiko mutila da, beraz, aurretik aipatu bezala, ideia berriak sortzen lagunduko digu, eta, ondoren, hori, diru-sarrera eta bezeroekin ditugun harremanetan islatuko da. Horrez gain, Eneritzek, informatika ezagutzak ditu baita webgunea diseinatzeko ezagutzak ere. Beraz, gure webgunea sortzerako garaian funtsezkoa izango den taldekidea da, izan ere, bera arduratuko da webgunearen funtzionamenduz, eta, lan hau ongi burutzeak, bezeroak erakarriko ditu gure Gazteparkera. Azkenik, Lidek, taldea koordinatzeko eta lidergorako gaitasunak ditu. Alderdi hau funtsezkoa da, izan ere, gure enpresa kudeatu eta aurrera eramateko jarrera beharrezkoa da taldekideen artean. Gainera, antolaketarako abilezia du. Beraz, gure enpresaren egunerokotasuna modu ordenatu batean aurrera eramaten lagunduko digu. Gainera, hori, diru-sarrera eta

bezeroekin harremanetan islatuko da, izan ere, antolamendu on batek erantzun onak emango dizkigu gure zerbitzuetan.

Azkenik, finantza-baliabideak izango ditugu gure proiektuan. Baliabide hauek ez dira askotarikoak eta handiak, izan ere, gazteak garen horretan eta gure aurrezkiak eta inbertsoreetatik lortutako dirua erabiliko ditugula kontuan hartuta, gure aukerak ez dira oso zabalak. Gure enpresaren lehen hilabeteak oso gogorak izango direla aurreikusten dugunez eta gure proiektuarengan konfiantza osoa dugunez, gure aurrezkiak erabiliko ditugu proiektuari hasiera emateko. Modu honetan, arrisku handia den arren, gure konpromisoa erakutsiko dugu. Bestalde, inbertsoreak erakarriko ditugu, gure proiektua hasiera batetik erakargarria eta osatua izan dadin, ondoren, honek, aurrerago izango ditugun diru-sarrerekin eta bezeroekin izango ditugun harremanekin lotura zuzena izango du eta.

Ondorioz, aurretik azaldu bezala, baliabide fisiko intelektual eta finantza-baliabideen bitartez gure proiektua aurrera eramango dugu. Azkenean, gure helburua, bezeroekin harreman ona izatea da eta diru-sarrerak izatea gure enpresa arrakastatsua izan dadin zentzu guztietan.

